


HITZAURRE TXAR BATEN AZALPEN OZTA-OZTA BERRIZ ERE HOBEA

"Bekatuaren itzala"ri buruz



Hain zapero jangaitza zergatik atera da, "Bekatuaren itzala" X. Mendigurenen nobelaren hitzaurre hori?

Sexuaz hitzegiteraz geroan, lehenengo Elizaren eta apaizen aurka lotsagabe asko protesta egitea izaten da. Hori "progre" da. Baina haragiaren eta emakumearen demonizazioak mendebaldeko kulturaren [platonismoa aipatu dut nik] oso gutxi dauka kristautasuneko fenomenoaren espezifikorik. Protesta-haizekeria horiek, horregatik, mutiko axialgain ignoranteen umekeria hutsak ematen dute askotan, aspergarri edo errukarri samarrak.

Bakarrik, umekeria txiki hori ez ulertzea, umekeria handi bat izango litzatekeela hemen, gure historiarekin. Daukagunaxe baitagukagu euskaldunok gure historia [eta horrela hasten gara, "ez, baina", "bai, baina, ordea" kontraesan artean mogitu beharrean uneoro gure kontsideroetan].

Horixe zen hain zuzen, gure historia bere eskola guztietan izan

dela holakoxea, nik azpimarratu nahi nuen beste gauza bat. Gure akats batzuk, zoritxarrez, ez dira joera batenak edo besterenak, gure historiarenak baizik. Gure kultura edo inkultura arruntarenak. Izan ere, farregura ematen du: Ingalaterrako liberalak oso majoak izan zirela eta, liberalak deituz gero, hemengoek ere majoak izan behar zutela, ematen du [eta "gu" haien jarraitzaileak gara noski gaur]. Baina hemengo gure liberalak, izan ziren bezalakoxe gizagaixo majoak izan dira bakarrik. Eta hemengo karlistak, zer esanik ez.

Berdintsu da gizadiaren historia osoan ere ordea. Gauza arruntak arrunki hartu beharko genituzke. Teatro gabe. Baina zer da gauza arrunt bat! Obsesio sexual historia bat gauza arrunt sinplea ote da? Ez al da, bada, tabu klasiko bat mundu guztian?

Horretan ere euskal literatura ez da agian oso aberatsa, baina amodiozko dramaren generoa eguzkiaren azpian egon daitekeen unibertsalena eta arruntena da historia modernoan zein antigualekoan.

Danteren Infernutik bertatik has gaitzke historia modernoan, Francesca da Riminirekin Bostgarren Kantan, geroko literatura nazionalentzat sinbolo bilakatu den izen doinutsuko emaztea, bere senarrak amorantearen besoetan sarraskitua: "Amor, ch'a nullo amato amar perdona / Amor condusse noi ad una morte", una azentuatu, aitortzen du berak, heriotze berbeteen hiltzen direlako ezpataz grinaren subjeto biak, Mendigurenen nobelan ere planteatzen den bezalaxe. Pasiozko heriotzeak betiere guztirako lotu ditu, zerua eta infernua batuz.

Baina Ravennako Jaunaren alabarena krimen pasional famatu baten kasua besterik ez da XIV. mendearen hasierako Italia urdurian. Dantek berak erakusten diguna, gizonaren historia betidanik dagoela halako historiaz kargaturik

--eta, beraz, infernua ere:

*E come gli stornei ne portan l'ali
Nel freddo tempo a schiava larga e piena;
Cosi quel fiato gli spiriti mali.
Di qua, di la, di giu, di su li mena;
Nulla speranza li conforta mai,
Non che di posa, ma di minor pena.
E come i gru van cantando lor lai,
Facendo in aer di se lunga riga;
Cosi vid'io venir, traengo guai,
Ombre portate dalla detta brigia.*

Jarraian Semiramis, Helena, Dido, eta Akiles, Paris, Tristan, etab., etab., kurrilo banda beltz horretan pasatzen dira. Beraz, horra irakurketa sinboliko baterako bidea ematen duten ideia/sinbolo guztiak ere jada: arabazozo garrasilarriak, kurriloen hegabide luzeak, heriotza eta birjaiotza naturaren erritmoetan... Zer duda, tradizio literarioa betetzen duen unibertso sinboliko horretan ulertu behar direla heriotza, odola eta apaizaren garbitasun obsesioak.

Semiramis Asiria eta Babiloniako erregina izan zen, Babiloniako lorategi eskegiak landarazi zituen, munduko zazpi mirabilitetako bat. Esanahiaren errealitatean, oster, hori ote da Semiramis egiazkoa, "imperatrice de molte favelle", "la hija del aire"? Ez: bere seme propioaren irritsez, intzestua legezkoa deklaratu omen zuen bere Inperioan. Hori da legenda. Historian hori da egia. Zer significatzen du, beraz, Semiramis erreginamalizunkoiak, "naturaren lege" moral garbia bera bortxatzen duen "emearen", hau da, grinaren kultur inperioa baizik, ongia eta gaizkia zer den arbitrarioki norbere grinaren arabera inposatzen diona botereak gizarte osoari? Zer eskandalizatzen gara, ordea, harreman sexualetan "bizio antinatural" horiekin: Kapitalismoa ez da horixe besterik harreman ekonomikoetan! Eta hamar urteko gerra luzean lotu dituen Greziako seme zangarrenak, Akiles eta Ulises eta eskolan

hunkitzen gintuzten beste heroi handiak, jainkoen Olinpoa bera bi alderditan erdibanatzera eta Ilion santua kiskaltzeraino, azkenean ezer sakraturik zeruan ez lurtean zutik uzten duen Homeroren misteriozko Helena hori, ez al da soil-soil komertzioa Itsaso Egeoa izan, egiaz gorputz eme gutziagarria horixe, "per cui tanto reo/ tempo si volse", eta Troiako kanpaina guztia hegemonia komertzialerako itsas gerra luze eta krudela, ez besterik?

Horrela, berdin-berdin da Mene-lao inbezilaren Helena izan edo Gianciotto Malatesta konkorraren Francesca dohakabea, XIX. mende erromantikoa Txairowskik operan ipini duena Romeo eta Julia bezala, inork desiratzea debekatuta dagoen "emakumea", Antzinate hasieran nahiz Moderniaren goizalban, zerbait politikoa eta ekonomikoa, O handiko "Ordenuaren" zentro-zentro eta muga, objektu izugarri konplexua bihurtzen zaigu mendebalean --alegia, gutxienez mendebalean, beste kulturetan ez dakit.

Ordenu ekonomiko eta politiko hertsiaeren erdi-erdian, zirkulu sakratuan, emakumearen totem-arbola dago zut gure kulturetan behin eta berriro, faszinagarri eta terrible.

Emakume figura aldaberak: klasikoa, kristaua, erromantikoa... estetikoak, erlijioak, politikoa.


Erdi horren arabera espazio guztiak hartzen du sentidoa. Horregatik, bada, ordenu mendebaldarrean "emakumeak" signifikazio arras zaila eta lehen ikusi batean ebidente ez beste guztia dauka guretzat. Esanahi are zailagoa amodio istorioak, artean apaiza egonez gero harrapatzen du batez ere, Euskal Herri nahaspilatu honetan batez ereago gaur, orain dabilkigun zirimolarekin. Ordenuaren ministrari sakratuaren sinboloa da, izan ere, apaiza [de fakto poeta, filosofoa... izan litezke errealtate sakratuaren ministrari horiek].

Egia da bitartean sexualitatearen analisi kontzientziapekoak, historiko-kulturalak, etc., aski ugaritu direla, maitasun istorio horietan gizakiaren barrua eta historiaren korapiloak eta zernahi beste ikusteko denok. Drama bakoitzean

gizadiaren drama jokatzen da. Danterentzat, bistan da, kultura edo gizatasuna berdin morala zen, hemengo liberalismoarentzat XIX. mendean bezalaxe eta geroago ere hemengo jende gehienarentzat eta apaizentzat guztiz gain. Maitasun grinatsuan amildegia eta perbertsioa ikusi dituzte ["mal perverso"], ordenamendu arrazoizko zuzena porrotarazten ["... i peccator carnali/ che la ragion sommettono al talento"]. "La ragion" dago beraz jokoan ["Talento" joera naturala da, grina]. Zenbat gauza ez dugu ikusi behar izan, ordea, azken denboran, telebistan eta prentsan, irrazionalkeriaren inkarnazio infernutar bezala aurkeztuta? Emakumean arrisku bat daukan ordenua. Emakumean mehatxu bat daukan arrazoizkotasuna, etc. Orduan galderak baitezpadakoa dirudi razionalki, zein arrazoizkotasun zinez ote den, irrazionalkeria horien madarrikazio publiko errepikatuokin, defendatzen dena, arrazoizkotasunaren gure historia luzeegi honetan.

Eta Freud arren, etab. etab., ikus Marcuse, kontzientziaren zapalke-ta horren emantzipazio borrokak inon ez du Alderdi eta sindikatu publikorik: indibidualki behar izaten dizugu lapurtu, ahal dugun modutxoan, bakoitzak bere libertatea, intimitate ezkutu isilean.

Baina utz dezagun. Agerikoa da emakumea rol batekin identifikatu dugula [gizona ere identifikaturik geratzen da], historikoki aldatuz, baina batez ere iraunez, joan doana gure kulturetan. Kontraesanak bere barruan ametitu ezezik, eskatu egiten dituen rol konplexu-sinplea: emakume bekatarari bere zorionean sakrifikatua [Francesca], birtutetsu garbi bere zoritxarrean berdin sakrifikatua [Desdemona]; edo tris-turaren uretan bera inmolatua [Ofelia], edota besteen inmolazio mendeku odoletan probokatzen duena [Helena]... Irudimena ikaragarri nekatu gabe guzti honetan mendebaleko emakumearen erpresio historia sado-masoka etengabea ere, etab., edozeinek irakur dezakeela, honez gero euskaraz irakurtzen duen inori ez dago aitortu beharrik: ahaztu ere ez daukagu eskubiderik egiteko; baiña nik ez nuen arazo horretan litera-



tura feministarekin lehian sartu nahi ere, emakumearen independentzia errebindikatzen edo. Alderantziz, historia honetako guztion ez-independentzia nahi nuen nik agertu.

Alegia, historia horretan denok biktimak garela. Eta okerragoa, nire funtsezko asmoa: biktimak izateko baina "gizaki osoak" izateko beste modu merezigarri samarrik oraindik ez dakigula gure kulturetan. ["Injustizia egin ala injustizia jasan izango zenuke nahiago?", galdetzen dio Polok; eta Sokratek "hobea" dela, erantzuten du gutxi gorabehera, torturatua izatea, torturatzaila baino... On oso txarrean bakarrik ematen du orduan "hobea"!]. Gauzarik ederrenak gizakiaren obretan, Egiptoko piramideak kasu, esklaberia eta esplotaziozko harriz daude historian eraikita. Askatasunaren garai-pen dirdaitsuenak amen negar ilunez daude barruan busti-busti. Gizona horixe da. "Superatu" omen dugunean, beste zulo batean jausi gara berriro. Historia horri Sisifoderitza. Horixe da gure, zure historia. Leonardo, Goethe. Progresoa esaten duguna miseria batetik bestera doa progresatzen historiaren "infernua".

Badago zerura gozo-gozo gidatzen duen Beatrice aingeruzko bat: baina ideian, ikuskari mistikoan. Desioan bakarrik ematen da hori ere. Argi bake hutsezko garbia bidearen goian. Errealtateko giza

• bizitzan idealekin ematen dena, "emakume"aren topikoa, dama florentziar titipunta-agiri haiek bezala izaten da [begien plazer eta irudimenaren tormentu, esaten zuen nire lagun batek]:

"...sfacciate donne fiorentine

L'andar mostrando con le poppe il petto"

[Purgatorioa, XXIII. Kanta].

Bizitza zerbaiti benetan eta seriooki entregatu nahi diogunean, guk amets ditzakegun xedeak eta ideiak, berdin artean, politikan edo bizitza pribatuan, beti "tentagarriaren" zentzu gordin bikoitzaz ager-

tzen zaizkigu, zorionaren promesa eta zorizaigo totalaren arrisku aldi berean. Eta horixe da gure patua. Gaixoa, idealen batek seduzitu ez duen gizakia! Gaixoa, ordea, idealen batek seduzitu duena ere... [E.H.-ko "arrazoizkoa" eta "irrazionala", berdintsu gaixo bi-biak!]. Gaixoagoa bere desengainu pertsonala Beatrice batekin konfunditu nahi diguna!

Kontua, orduan, literaturaren historia horretan, eta gure historia honetan, nobela hau zergatik idatzi den oraintxe da, eta zergatik idatzi den horrelaxe. Nobela desesperatu bat ote da? Oraingo denkonzertua-

ren nobela bat ote da? Ez dakit. Gauza seguru bakarra nigan probokatu duen deskonzertua da zalantza gabe. Nobela horretan gure denbora mintzo zait. Zer ari da, mar-mar-mar, testupean iturria esaten?

Baina guzti honetaz ez zegokidan niri garbi eta libre hitzegitea. Orduan, aurpegizat ausarki maskara erakutsiz, erudiziopean ezkutatzea bezala entseiatzen da libertatea -- edo libertate falta. Horixe bera ere franko "femininoa", ezta? Ez gara inoiz libratzen.

Joxe Azurmendi

OPONIOA

Gazte higuigarri baten aburuak

--Utz ditzagun alde batera kontu pertsonalak, ados? Goazen irizti sozio-politikoetara. Zuk ederto dakizu zer esan nahi duen horrek, ezta? Zure kultura maila oso ona da. Goazen harira. Zer irizti duzu Euskal Herriaz?

--Txarra.

--Zergatik?

--Oso zikina delako, goiz partean batez ere. Bilbo aldean behintzat esfortzu eta kontzentrazio handia eskatzen dizu kakamokordoak saihesten ibiltzeak.

--Kakamokordoak zakurrenak dira.

--Jabeen jana botatzen dute ipurtzulotik, jabeen baimena dute gaixoez espaloiak eta metro karratuko berdeguneak kakazteko. Zakur deslaiez ez dut ezer txarrik esango, nire errespetu guztia dute. Dena dela, zikinkeriarera orokorra da. Jaietako usaina txiz usaina da, funtsean.

--Agintarien errua ala gizartearena?

--Guztiona. Guztiok gara zikinak eta zikinzeak.

--Ez duzu, antza, zure herria lar maite.

--Deseroso sentiarazten nauelako. Edozein lekutara noala ere, hantxe ikusten dut beti alderdi kritikagarriren bat. Begiratu, horixe nago, osteratxo bat egiten harizti eta pagadi artean eta bat-batean, dzast, eremu posnuklearra orain gutxiko ingurune zoragarriaren erdian, dena desagertua, hariztik eta pagorik ere ez; soilik lur gorri urratua eta pinu txikerren ilarak. Penagarriak gara. Hondamendizaleak gara.

--Ez al duzu uste gure bizimoduak behartzen gaituela agian onak ez diren gauza batzuk egitera? Zuk zein irtenbide proposatuko zenuke gauzak hobetzeko?

--Nik ez dut ezer proposatzen. Otutzen zaidan gauza bakarra lehegailu atomiko bat da, sofrimendua arintzeko, ibiltzera goazen bidea laburtzeko. Ja ke triskantza nahi dugun datozen belaualdi-koentzat, bada ez gaitzen hain gurekoiak izan eta azkar dezagun akabua.

--Ordea, lehegailuak egiteko zientzilariak behar dira, eta zientzilariak sortzeko unibertsitateak, eta azken horietarako zementua eta lur sail bat eta arkitektoak eta langileak eta dirua.

--Aprobetxa ditzagun, beraz, orain sobera ditugun lehegailuak.

--Hortaz, zu ere hondamendizalea zara.

--Eta gainera akrata hutsa, bai, eta guztiaren kontrakoa ere bai. Galde egidazu benetan zerbait sozio-politikaz edo kulturaz edo beste edozertaz eta ikusiko duzu nola higuina darion.

--Tira, ez didazu esango adibidez euskararen ezagupenean aurrera egin ez dugunik!

--Niri oraindik ere martitztarra izango banintz bezala begiratzen didate dendara sartu eta "Sagarrik ba al duzue?" itauntzen dudanean.

--Agian ezin diogu oraindik gure buruari gehiegi eskatu. Lozorroan egotetik 100 metroko lasterketan irabazle izatera alde handia dago.

--Lasterketan partaide izatearekin konformatzen naiz.

--Ezer lor liteke irabazle izatera ez ateratzearekin?

--Ezer ez lortzearekin ere konformatzen naiz.

--Euskara ez da jadanik abertzaleen kontu bat. Hori ez duzu ukatuko.

--Zorionez hala da, abertzaleen artean baita folklorismorik gehien. Abertzaleei gutxiago esijitzen zaie, euskal zerura igotzeko nahikoa dute euskaltzale izatearekin.

--Denbora amaitzen ari zait eta ez dugu sozio-politikaz apenas hitz egin. Azken galdera bat. Zu abertzalea zara?

--Ni penagarria naiz.

--Pinuak eta euskara eta abertzaleak baino ez ditugu izan hizpide. Nik gehiago nahi nuen eta esaten ez badidazu ziegara bidaliko zaitut ostera ere.

--Zuk informazioa nahi duzu, baina ni ziegako zomorro zoroa baino ez naiz.

--Zoro negargarria, bai. Zurekin ez dago zereginik. Birtziklaezina zara. Jaun-andreok, eraman ezazue gazte higuigarri hau ziegara bueltan.

--Eskerrik asko.



Josu Lartategi (Bilbo)